

Mondragon Unibertsitatea, III Danbaka musika lehiaketaren laguntzaile

2008/09/18

Mondragon Unibertsitatea Danbaka musika lehiaketaren laguntzailea izango da, urriaren 17an hasiko den aurtengo III. edizio honetan. Aurten Debagoienekoez gain, Debarrena eta Durangaldeko musikari zein taldeek parte hartu ahal izango dute. Musika gaztearen esparruan (pop, rock, elektronika, thrash, rock & roll, hard-core.) Euskal Herrian antolatzen den lehiaketarik ezagunenetako bat dugu. Bi urtetan behin antolatzen da, eta aurreko edizioan, 2006koan, 36 talde aurkeztu ziren.

Emanaldiak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango dira, urriaren eta 2009ko urtarrilaren artean, guztira zazpi kontzertu. Danbaka Goiena komunikazio taldeak antolatzen du.

www.danbaka.com

